07 / EUSKADIKO ETA GINEAKO ORDEZKARIAK FORO BATEAN BILDUTA

18 / IOSU ZABALA RECTOR DE MU PRESENTA EL PROYECTO BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA



09 / KOOPERATIBA EREDUAREN BALIOAZ

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2013ko negua | 26. zenbakia




## PEDRO BITERI ETA ARANA IKASTETXE NAGUSIA

GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

LABORAL kutxa



- Minibusak (19-25 eserleku)
- Plataformadun autobusak
- Luxuzko autobusak
- 56-60 eserlekudun autobusak
- 78-80 eserlekudun autobusak

BIDAIA BAT BAINO
ZERBAIT GEHIAGO

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

Tel.: 943 36 32 90
Mail: info@autocares-aizpurua.es

www.autocares-aizpurua.es

Aizpurua AUTOBUSAK




# KOLDO MITXELENA Kulturunea

**KOLDO MITXELENA Kulturunea**n egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko *RealVideo* programa instalatu bezain pronto. Ikus: kmk.gipuzkoakultura.net










**KOLDO MITXELENA Kulturuneko** liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakegu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. kmk.gipuzkoakultura.net

## AURKIBIDEA

03 Editoriala
04-08 Berriak
09 Iritzia · Ainara Udaondo
10-12 Gai nagusia
13 Iritzia · Pablo Sal
14-17 Fakultateak
18-19 Elkarrizketa ·Bilbao Berrikuntza Faktoria
20 Graduondoak
21 Ikasle ohiak
22 Tesiak
23 Mundukide
24 Kirol Zerbitzua
25 Nazioarteratzea
26 Agenda

# CANALIZAR EMPRENDIZAJE E INNOVACIÓN EN BILBAO

Hace mucho que las fronteras y las delimitaciones geográficas perdieron parte de su sentido, y que la movilidad forma parte de nuestro día a día con las miras en la mejora de la calidad de vida. Un claro ejemplo de ello es que Mondragon Unibertsitatea sigue paso a paso ampliando su oferta formativa y su campo de acción, siempre con decisión pero también con la prudencia que le caracteriza. Más allá de la comarca de Debagoiena que la ha visto nacer y crecer, la universidad está ya implantada en Goierri, en Bidasoa, en Donostia (en Orona Ideo, además de Basque Culinary Center) y a partir de este curso también en el centro de Bilbao. El desembarco en el botxo ha nacido del interés del consistorio bilbaino en recuperar el músculo industrial de la ciudad y atraer empresas, y para ello ha querido contar con MU para diseñar un espacio común donde empresas en despegue interactúen con estudiantes de emprendizaje. Este nuevo ecosistema de emprendizaje e innovación que no tiene, por sus características, parangón en Europa ya ha empezado a andar con el grado de LEINN y con un curso avanzado de diseño industrial.

No es casualidad que el consistorio bilbaino haya querido contar con MU (y por extensión con MONDRAGON) para acometer este ambicioso reto que revitalice la industria, debido a nuestro bagaje y a la continua reinvención de Mondragon Unibertsitatea.

*“El consistorio bilbaino ha querido contar con MU para diseñar un espacio donde empresas en despegue interactuen con estudiantes de emprendizaje”.*

En otro orden de cosas, también conviene destacar el hecho de que varios jóvenes formados en LEINN están creando, por su cuenta y riesgo, diversos proyectos y empresas con notables visos de éxito. Tal es el caso entre otros de taZEBAez, nueva consultoría que, priorizando el sector de los jóvenes, ofrece servicios de coaching, cambios de estrategias o creación de nuevos servicios, así como procesos de innovación abierta para conseguir interacción entre jóvenes y empresas. De hecho, trabajan en un modelo franquiciado para expandirse internacionalmente.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**
**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu
**Koordinatzailea** Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Susana Azpilikueta, Idoia Elizalde, Maria Angeles Iñurritegi, Idoia Peñakoba eta Aitor Zuberogoitia.
**Laguntzaileak** Gentzane Aldekoa, Pedro Arrazola, Jokin Laspiur, Pedro Subijana, Estibaliz Zurimendi.
**Tirada** 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Arteman | **Moldiztegia** MCC Graphics

## LA-STEPS, SERVICIOS DE PINTURA MURAL

La-Steps es una empresa creada por leinners que ofrece servicios de pintura mural. El medio es el spray, y se expresan a través de dibujos figurativos o abstractos traduciéndolo en un trabajo constructivo que añade una dosis de creatividad al entorno.

También crean valor a la hora de educar futuras generaciones instándolas a que crezcan en un ambiente de graffiti social y artístico de una manera constructiva. Además, ofrecen a los negocios una forma de publicitarse a través de sus persianas o fachadas y el mantenimiento de las mismas, haciendo menos probable que sean objeto de pintadas. Pintan en todo tipo de superficies desde persianas, fachadas o muros, establecimientos comerciales, hasta viviendas particulares.

## DOS ALUMNOS DE EPS PREMIADOS EN ORONA GET UP

Un total de 16 alumnos de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea y Tecnun han presentado su Proyecto Fin de Carrera para la 4ª Edición Premios Orona Get Up celebrado en Orona Fundazioa. Los premios Orona Get Up surgen como un impulso de Orona a la investigación, para los jóvenes que terminan la carrera universitaria en reconocimiento a aquellos proyectos que tengan parte de investigación y que aporten novedades.

De todos los alumnos presentados, dos alumnos de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea, que han presentado sus proyectos de fin de carrera, han sido premiados con el 1º y 2º premio. El primer premio fue para el alumno Aritz Marquínez Remón al mejor proyecto. El segundo premio fue a parar al alumno, Iker Juanena Sánchez. El primer premio fue dotado con 1.500 euros y el segundo con 1.000 euros.

BERRIAK



**PERUKO SUKALDARITZA** garaikidearen filosofia eta balioak azaldu zituen Gastón Acuriok Master Classean.

## MASTER CLASS DE GASTÓN ACURIO

Gastón Acurio, chef peruano, gran referente en su país por su compromiso social e internacional por la puesta en valor de los productos y culinarias peruanas, impartió una magnífica Master Class ante un auditorio abarrotado de estudiantes de Grado, Masters y profesionales de la cocina.

Gastón Acurio es miembro del Consejo Asesor del Basque Culinary Center y fue el anfitrión de la reunión del Consejo en Lima en 2012. Acurio desgranó la filosofía y valores que están presentes en la cocina peruana contemporánea mientras iba elaborando una serie magnífica de ceviches.

El trabajo conjunto entre cocineros, su estrecha colaboración con pescadores artesanales y el impulso y renovación de la cultura gastronómica popular son elementos claves para entender el importante momento que está viviendo la cocina peruana.

Gastón deleitó además a los asistentes con una demostración de elaboración de ceviches, desde el más sencillo hasta el más sofisticado, ceviches que los asistentes tuvieron ocasión de degustar.

## ERASMUS IKASLEAK IRITSI DIRA HUHEZIRA

Orotara atzerriko zortzi ikasle iritsi dira Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera (HUHEZI), gurean egiteko Erasmus egotaldia 2013-14 ikasturteko bigarren lauhilekoan. Euretako seik Teacher Education. International Programme ikastaroa egingo dute, eta beste bik, berriz, Media and Communication ikastaroa (biak ala biak 30na ECTSkoak dira). Sei unibertsitate hauetatik datoz ikasleak: Kadir has University (Istanbul, Turkia), PXL University College (Hasselt, Flandria), KHLIM-Limburg Catholic University College (Limburg, Flandria), Marnix Academie University (Utrecht, Herbehereak), University of Oulu (Oulu, Finlandia) eta Riga University of Teachers (Riga, Letonia). Hezkuntzako programara etorritakoak ekainaren 27ra arte izango dira Euskal Herrian (lauhilekoa otsailaren 17an abiatuta) eta Komunikazioko programa hautatu dutenak, berriz, ekainaren 20ra arte egongo dira gure artean (otsailaren 3an hasita).

# CÓMO UNIR LA FORMACIÓN CONTINUA CON LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS: MU+ TICS



EL GRUPO "SOCIAL AND NETWORKING TECHNOLOGIES GROUP" ESTÁ COMPUESTO POR 8 PROFESORES DE LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR DE MU. SU ACTIVIDAD SE DESARROLLA FUNDAMENTALMENTE EN EL ÁMBITO DEL MARKETING DIGITAL, EN LAS ÁREAS DE FORMACIÓN Y PRESTACIÓN DE SERVICIOS A EMPRESAS Y PROFESIONALES.

El objetivo fundamental del grupo es colaborar con las empresas en mejorar su visibilidad en Internet e intentar que la red se convierta en un canal de comunicación útil para ellas, siempre en función de sus objetivos de negocio. Para ello, organizan jornadas divulgativas y cursos específicos tanto en la Universidad (participan en el Máster en Marketing Digital organizado por Enpresagintza, por ejemplo), como en organizaciones externas. También imparten cursos bajo demanda adecuados a las necesidades de las empresas

Además, colaboran en proyectos de asesoría a empresas en temas como posicionamiento Web, analítica Web, comercio electrónico, redes sociales, arquitectura de información, usabilidad, asesoría técnica, reputación online o vigilancia tecnológica y competitiva. Trabajan con empresas como IASA (Astore, Ternua), KZgunea, SPRI, Orona, Guardian, Grupo ULMA, Ulma Architectural, Ulma Construction, Tolosa Kirol Medikuntza, Fagor Arrasate, Hotel Villa de Laguardia, etc.

El grupo está coordinado por Iñaki Lakarra, que ya hace unos años detectó la necesidad de que las empresas potenciaran su presencia y visibilidad en Internet. En palabras de Iñaki, "estamos convencidos de que Internet tiene un gran potencial para cualquier empresa, independientemente de su tamaño o sector. Pero hoy en día, en 2014, todavía hay empresas que viven de espaldas a esta realidad. Sobre todo en nuestro entorno, en el que abundan las empresas industriales que no ven de manera clara qué mensajes dar o qué objetivos de negocio pueden cubrir en Internet". En este sentido, organizan anualmente de la mano de SPRI el congreso Indusmedia, centrado en el Marketing Digital para Empresas Industriales.

En cuanto a su forma de trabajar, utilizan la metodología *"learn by doing"* o "aprender haciendo", no solo en la parte formativa de su trabajo sino también en los proyectos de colaboración con las empresas, ya que consideran que es estratégico que parte del conocimiento y de los procedimientos relacionados con el Marketing Digital se queden en las organizaciones.

**"Social and Networking Technologies Group"**
Iñaki Lakarra, Jesús Lizarraga, Miguel Fernández, Elixabete García, Dani Reguera, Montse Ereño, Urko Zurutuza y Ane Bilbao.

## ZERGA-SISTEMARI BURUZKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN DISEINUA

Zerga-sistemari buruzko argibideak emateko sekuentzia didaktikoa prestatzen dihardu HUHEZIko irakasle eta ikasle talde batek, Oñatiko Txantxiku Ikastolarekin elkarlanean. Gipuzkoako Foru Aldundiak deialdi publikoa egin zuen DBHko 4. mailako ikasleei zerga-sistemaren berri emango zien sekuentzia didaktikoa diseinatzeko, eta HUHEZIk aurkeztuiko egitasmoak eskuratu du subentzioa.

Irailetik sekuentziaren diseinuan murgilduta ibili da HUHEZIko ikasle eta irakasle talde bat (Nagore Ipiña, Ainhoa Larrañaga eta Eugenio Astigarraga irakasleak eta Ioritz Paulis eta Markel Urrutia fakultateko ikasle eta informatika sistemen kudeatzaileak), Txantxiku Ikastolako Nagore Altube eta Andoni Zendoia irakasleekin batera.

Sekuentziaren helburua da azaltzea zeintzuk diren Gipuzkoako pertsonek eta erakundeek ordaindu beharreko zergak, horiei esker egiten diren lan eta jardueren berri eman eta ikasleak jabearaztea zerga-iruzurraren ondorioen garrantziaz.

### PROBASAIOAK ABIAN

Behin diseinu-lanak amaituta, probasaioak egiten ari dira orain zenbait eskolatan (ikastetxe bi sare bakoitzeko): Mariaren Lagundian eta Elkar Hezin (Kristau Eskolako zentroak biak ere), Txantxiku eta Haurtzaro ikastoletan (Ikastolen Elkartea) eta Arrasateko Institutuan eta Lizardi Institutuan (sare publikokoak biak).

Antolaketari dagokionez, eskola bakoitzak bere proposamena egin du HUHEZIn burututiko tailerretan: batzuek astean ordu gutxiago proposatzen dituzte, sekuentziari aste gehiago eskainita; beste batzuek, aldiz, hobetsi dute sekuentzia trinkotzea, denboran laburtzea eta astean ordu gehiago eskaintzea. Edozelan ere, denek martxoa eta apirila bitartean amaituko dituzte probasaioak. Proposatuko diren lanak hezkuntza kooperatiboaren metodologian eta hezkidetzan oinarrituko dira.

## MASTER PROFESIONAL EN ENERGÍA ELÉCTRICA

La energía es uno de los sectores claves en la economía de Euskadi, tanto por su volumen como por su importancia estratégica. Aún así, su crecimiento y competitividad se ven limitados por la falta de personal altamente cualificado. El diagnóstico realizado por el Cluster de Energía constata la diferencia entre oferta y demanda, y por otro lado la necesidad de especialización del sector. La mejora de la competitividad de las empresas se logra gracias a la innovación tecnológica y especialización de los profesionales. Para dar respuesta a este problema, EPS de Mondragon Unibertsitatea y el Cluster de Energía lanzan la primera edición del Máster Profesional en Energía Eléctrica. El Máster está dirigido a profesionales que quieran especializarse en áreas de conocimiento relacionadas con la energía eléctrica y electrónica de potencia.

## INSTITUTO DEL VINO-BCC WINE

El Instituto del Vino de Basque Culinary Center se creará a principios de 2014 y su comité de expertos está integrado por una docena de profesionales de prestigio: el presidente de Vega Sicilia, Pablo Álvarez; el presidente de Rioja Alta, Guillermo Aranzabal; el presidente de Fernando de Castilla-Jérez, Jan Pettersen; los enólogos Pepe Hidalgo, Agustí Torelló y Elena Adell; los sumilleres Josep Roca (del Celler de Can Roca, elegido recientemente el mejor restaurante del mundo); Pablo Martín (presidente de la Asociación de Sumilleres de España); y el único Master of Wine de España, Pedro Ballesteros. Además, será miembro del Comité de expertos un sumiller de uno de los restaurantes de los chefs patronos del BCC -Arzak, Akelarre, Martín Berasategi, Mugaritz, Azurmendi, Zuberoa, Karlos Argiñano-, que irán rotando anualmente. Completan el elenco la crítica gastronómica Pilar Molestine y el distribuidor Quim Vila.

## TOKIKO KOMUNIKABIDEAK AZTERGAI

**MEDIOS DE COMUNICACIÓN LOCALES.** La asociación Tokikom presentó su estudio anual en HUHEZI y al mismo asistieron responsables institucionales.



Tokikom euskarazko tokiko komunikabideen elkarteak azken hilabeteetan landutako gogoeta-txostena aurkeztu zuen pasa den azaroaren 26an HUHEZIren Aretxabaletako campusean. Gogoeta hori Mondragon Unibertsitatearekin eta Hekimen-ekin (euskarazko herri ekimeneko hedabideen elkartea) batera egindako elkarlanaren fruitua da.

Euskarazko tokiko komunikabideen ordezkaritza zabala elkartu zen Aretxabaletako jardunaldian, eta erakundeetako ordezkariek ere hartu zuten parte (Ana Castro eta Zigor Etxeburua Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundietako Euskara zuzendariek eta Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, hain zuzen). HUHEZIri dagokionez, Aitor Zuberogoitia irakasleak 'Tokiko hedabideak, Unibertsitatea eta Administrazioa: aliantza estrategikoen garaia' txostena aurkeztu zuen; Eneko Bidegainek, berriz, Tokikomentzat espresuki hainbat hilabetez landutako ikerlanaren emaitzak bistaratu zituen 'Euskarazko tokiko hedabideen erradiografia' aurkezpenean. Eneko Bidegain berak Nafarroako euskarazko komunikabideen egoera ikertuko du aurten Tokikomentzat.

## GLOW KOOPERATIBA SORTU DUTE EKINTZAILETZA SUSTATZEKO

MUko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza graduko ikaslez osatutako talde batek Glow kooperatiba sortu du gazteen artean ekintzailetza sustatzeko. Dagoeneko hiru tailer antolatu dituzte Euskadiko hiru zentrotan.

14 gaztez osatutako taldeak erabaki du barneratzen ari diren ezagutzak beste gazte batzuei helaraztea, eta horretarako sortu dute kooperatiba. Oraingoz, Heziz Hazi tailerrak jarri dituzte martxan. Ikastaro horietan Batxilergoko ikasleen ekintzailetzarako espiritua eta gaitasunak sustatzen dituzte.

Glow kooperatibako lantaldeak jada eskaini ditu Heziz Hazi tailerrak Gernika, Arratzu eta Bermeoko ikastetxeetan, eta gazteei erakutsi diete posible dela lan arloan aukera berriak irekitzea aukera tradizionalez harago, norbere negozio ideiak praktikan jarriz. Ikasleek hainbat ariketa egiten dituzte beren ametsak gainerako ikaskideekin partekatzeko, eta ondoren amets horiek egia bihurtuko dituzten enpresa proiektuak hausnartzen dituzte.

Glow Kooperatiba Juniorra formula juridiko berriaren pean ernaldutako kooperatiba bat da, zeina Eusko Jaurlaritzak sortu baitzuen 2013-2014 Enpleguaren Suspertze Programaren barruan gazteen ekintzailetza eta enplegua sustatzeko.

BERRIAK

# EUSKADIKO ETA GINEAKO ORDEZKARIAK FORO BATEAN BILDUTA




MU-KO LEINN GRADUKO IKASLEEK *AFRORUM EUSKADI* IZENEKO ENPRESA-TOPAKETA ANTOLATU ZUTEN, EUSKADIREN ETA GINEAKO ERREPUBLIKAREN ARTEKO NEGOZIO-AUKERAK AZTERTZEKO. GINEAK POTENTZIAL EKONOMIKO HANDIA DU, ETA HAZKUNDEAN DAGO BETE- BETEAN.

LEINNgo bi junior kooperatiben bitartez (Jump In eta Snatu) sortu zen ekimena. Xedea langabezian zeuden Gineako unibertsitate-tituludunei prestakuntza ematea zen, beren herrialdean premiaren bat konpontzeko jarduera ekonomikoak sor zitzaten. Ondoren, MUko beste junior kooperatiba bat ere (Login Lan) ekitaldia antolatzen laguntzeko prest azaldu zen. Euskadiko eta Gineako ordezkariak Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean bildu ziren.

Topaketaren bidez, bi herrialdeetako parte-hartzaileek elkar ezagutzea nahi zen, elkarlanerako aukera berriak aurki zitzaten. Elkarrizketa irekian honako enpresek parte hartu zuten: Alet eta Taldea, energia berriztagarrien sektorekoak; Iparlat eta Natra, elikagaietakoak; Ulma Construcción eta Ulma Packaging, eraikuntzakoa eta ontziratzesektorekoa; Mondragon Unibertsitatea, Harreman eta MTA, gizarte-hezkuntzakoak; Almasa eta JMA, osagaiak eta makinak egiten dituztenak; eta Salva, Gashor eta Kide, hozketak eta labeak egiten dituztenak. Enpresa bakoitzak aurkezpen laburra egin zuen, ekitaldira zertarako etorri zen azaltzeko. Gainera, sektore horiek Ginean zer egoeratan dauden aztertu, eta erronkak eta aukerak identifikatu ziren.

Horrez gain, Naxan nazioartekotzean espezializatutako aholkularitza-enpresako Eduardo Sanzolek eta Guinnove Team-eko (Gineako ekintzailetza-taldea) kide batek ere hitzaldi bana eman zuten.

**AFRORUM**
Estudiantes de LEINN organizaron un foro para unir empresas de Euskadi y de Guinea.

# PROYECTOS PRÁCTICOS DE ALUMNOS DE 2º DE GRADO EN GASTRONOMÍA Y ARTES CULINARIAS

Los alumnos de segundo de Grado han presentado sus proyectos prácticos en una Feria que ellos mismos han organizado, donde los profesores y compañeros han podido conocer y testar el resultado de los ejercicios dentro de la formación de desarrollo y creatividad, 'Del nacimiento de una idea hasta su materialización'. ¡Enhorabuena a todos!



## 13 NUEVAS IKASTOLAS SE SUMAN AL PROGRAMA SUKALDATU

El programa Sukaldatu para promover la cocina saludable fue ideado por Basque Culinary Center, Ikastolen Elkartea y Eroski, y echó a andar el curso pasado como proyecto piloto en tres ikastolas: en las vizcaínas Astileku y Txintxirri y en la guipuzcoana Txantxiku. Y dado su éxito, este curso el programa se ha ampliado a 13 ikastolas de los tres territorios con la participación de alumnos, profesores, cocineros y padres.

En concreto, el proyecto Sukaldatu/A Cocinar tiene como objetivo poner en valor el papel de la cocina en diferentes ámbitos, por su impacto en ellos, como son la salud, los vínculos familiares y la riqueza local a través de productos locales, al considerar que cocinar y comer juntos es un elemento fundamental de la familia y la educación. Cocineros de prestigio han reivindicado recientemente la alimentación y la nutrición como asignatura escolar para enseñar a comer sano.

## TAZEBAEZ, PUENTE ENTRE JÓVENES Y EMPRESAS

Diez jóvenes emprendedores formados en LEINN decidieron crear una empresa juntos, taZEBAez.

Sus labores de consultoría consisten tanto en sistemas de coaching como en el impulso de cambios de estrategias o creación de nuevos servicios, dando siempre prioridad al mercado de los jóvenes. Uno de sus productos estrella es Global Futurizer, un proceso de innovación abierta y colectiva para rellenar el vacío existente entre universidades, estudiantes y empresas.

Su idea es inculcar a los jóvenes una cultura emprendedora y mostrar a las empresas que abriéndose e incluyendo a gente jóven en sus proyectos pueden sacar ideas novedosas. Ya han realizado ediciones en 5 países y trabajan en un modelo franquiciado para expandirse internacionalmente.

BERRIAK



## GEP-EK LAU IKERKETA PROIEKTU LIDERATUKO DITU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PROGRAMAREN BAITAN

2013 urteko Gipuzkoa, Ekiten Duen Lurralde Gisa Sustatzeko Programaren deialdia arrakastatsua izan da Goi Eskola Politeknikoko Antolakuntza Industrialeko Ikerketa taldearentzat. Aurtengoan, aurkeztu diren sei ikerketa proiektuetatik, lau onartu dira, guztira, eta ia 265.000 euroko diru-laguntza jaso dute. Proiektu hauek 2013ko irailean hasi eta 2014ko uztailera bitarteko epea dute gauzatzeko. Onarturiko proiektuak honako hauek dira: LSP-Lean Startup Saiakuntza Heuristikoa, EKOI-2; Dibertsifikazio Berdea Enpresetan Sustatzen, Bateratzen 13-14; Balore eta konportamendu kooperatibo -konstruktiboen sustapena antolakuntzen emaitzak hobetzeko eta Kimuberri-Aise.

Lau proiektuetatik lehen hirurak enpresa eremuan landuko dira, enpresen dibertsifikazioan eta enpresa proiektu berrien sormenean lagunduz eta enpresako pertsonen berrikuntza eta konpromisoaren sustapena bultzatuz. Kimuberri-Aise proiektuaren kasuan, Debagoieneko gazteen arteko ekintzailetza sustatzea izango da helburu nagusia, eta hau lortzeko asmoz hainbat ekimen martxan ipiniko dira, bai hezkuntza eremuan eta baita gizartean ere.

Proiektu hauei esker, jada abian zeuden ikerketa lerroak indartuko ditu Antolakuntza Industrialeko Ikerketa taldeak, eta era berean, ikerketa proiektu berritzaileetan lan egiteko lehen aukera bat izango du, lorturiko emaitzekin lurraldearen ekintzailetasunari bultzada bat emanez.

## GAZTE EKINTZAILEAK KOMUNIKALDIETAN

HUHEZIren Komunikazio departamentuak antolatuta, otsailaren 26an 9. aldiz egin ziren Komunikaldiak. Garaia Berrikuntza Gunean izan zen hitzordua, eta Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasitako zenbait gazte ekintzaile izan ziren hizlari, Ikus-entzunezkoak ikasi ditut, eta orain zer? galdera baitu goiburutzat aurtengo ekitaldiak.

Ane Irazabal freelance kazetaria Kairotik etorri zen. HUHEZIn ikasitakoa da eta hainbat komunikabidetarako dihardu beharrean. Oihane Beñaran HUHEZIko ikasle ohiarekin, berriz, Skype bidezko konexioa izan zuten. Beñaran Bolivian dago, Nazio Batuen Erakundean komunikazio-teknikari lanetan. Rubén Mateo Beniwood Producciones ekoiztetxeko sortzaileetakoa ere etorri zen. Hiru gazteren artean sorturiko produktora arrakastatsu baten adibidea da Beniwood.

Hirudart enpresako bi kideak ere bertan izan ziren. 2010ean ekintzaile lehiaketa irabazi zuten Bilbon, eta gaur egun Euskalvalley ekintzaile euskaldunen mugimenduko parte dira. Aiala Fernándezek, azkenik, Europako sormen industrien etorkizunaz jardun zuen. ISEAk, Euskaltelek eta Coprecik babestu dituzte aurtengo Komunikaldiak.

# KOOPERATIBA EREDUAREN BALIOAZ

Une nahasiak bizi ditu MONDRAGONeko kooperatibagintzak. Azken aldiko gertakariek kooperatibagintzaren inguruan galdera inportanteak azaleratu dituzte modu gordinean. Hala ere, presio mediatikoa itzela izan da, ereduaren beraren gainbehera iragarri duenik ere egon da tartean. Sentsazionalismo lartxo eta irakurketa zorrotz gutxi. Zalantzarik ez dago hausnarketa sakona egin beharko dela gertatukoaz kooperatibagintza indartzeko norabidean.

Edozelan ere, momentuko irakurketa laburrak gaindituz, kooperatiba ereduaren balioa aldarrikatu nahi dugu ozen eta garbi. LANKItik urteak daramatzagu kooperatibagintza biziberritzeko langintzan, ikerketa eta gogoeta kooperatiboa eginaz. Eta bai, ezagutzen ditugu gure ereduaren kontraesanak eta zailtasunak, protagonistekin daukagun interakzio zuzenaren bidez. Baina, hain zuzen ere, praktikak aitortzen duen eskarmentuan oinarrituta, eredu kooperatiboaren balioa handia dela diogu. Kooperatibak ez dira formula perfektuak, baina zalantzarik ez dago erantzun zehatz eta erreal interesgarriak eskaintzen dituztela enpresa eta ekonomia egiteko molde gizatiarragoak inspiratzeko. Zergatik diogu hori?

Hasteko, hegemonikoa den kapitalaren logikatik aparte, bestelako logika sozialak enpresaren eremura dakarten proposamenak direlako. Enpresa efikazia eta baloreak uztartzeko saiakera errealak dira kooperatibak. Tentsio hori zaila da askotan, baina proposamen orekatuagoak sortzeko bidea da. Gainera, baloreak praktikara, mekanismo zehatzetara, ekartzeko etengabeko ahalegina dago proposamen kooperatiboan.



**AINARA UDAONDO**
LANKI Ikertegiko Zuzendaria / HUHEZI

*"Garen horretan sakontzea da norabidea: nortasundun kooperatibismo auto-exijenteago bat ernetzea".*

Baloreen gauzatze horren adibide argia da elkartasunaren praktika. Kooperatibagintzaren ezaugarri garrantzitsua da saregintzarako eta interkooperaziorako agertu izan duen sormen handia. Horrek guztiak aukera eman du kooperatiben arteko elkar-laguntzarako mekanismo eraginkorrak sortzeko eta krisiei erantzuteko bestelako formula berritzaileak garatzeko.

Bestetik, demokraziaren praktika enpresaren eremura dakarren proposamena da eredu kooperatiboa. Protagonisten esku jartzen du erabakimena. Jakin badakigu ez dela praktika erraza (mekanismoak garatzea eskatzen du, informazioaren trataera eraginkorra egitea, pertenentzia sentimendua aktiboki elikatzea…), baina edozelan ere, demokraziaren ideia lan-eremura ekartzea balio handiko ekarpena da.

Azkenik, kooperatiben papera tokiko garapenaren ikuspuntutik ere esanguratsua da. Kooperatibak autoeraketan oinarritzen diren erakunde sustraituak dira, bertakoak. Edozein herriren garapenerako interesgarria da beren burua antolatzen duten eta herrialdean bertan erroturik dauden enpresak izatea. Oro har, kooperatibek inguruko gizartearekiko konpromisoa dute: enpleguarekiko ardura, aberastasunaren banaketa orekatuagoa, funts sozialen banaketa edo ikerketan, hezkuntzan eta garapenean egiten den inbertsioa horren adibide argiak dira.

Aipaturiko ezaugarri horiek guztiak etorkizuna pentsatzen jarraitzeko pista interesgarriak dira. Garen horretan sakontzea da norabidea: nortasundun kooperatibismo auto-exijenteago bat ernetzea. Azken krisi honen gaineko hausnarketa sakona egitea dagokio kooperatibagintzari eta bere burua birpentsatzen jarraitzeko kemena izatea: galderei begirada berrituz erantzun, korapiloak identifikatu, eta formulazio berriak eraiki. Unibertsitateari dagokio bide horretan eragile aktibo izatea gainontzeko kooperatibekin batera, zeregin horren zerbitzura gogoeta kooperatiboa, ikerketa eta gure hezkuntza-lana eskainiz.

# PEDRO BITERI ETA ARANA IKASTETXE NAGUSIA

## MU-K IKASLEEI ZUZENDUTAKO EGOITZA DU SORRERATIK. ARRASATEN KOKATUTA DAGO, GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN INTEGRATUTA. URTERO 100 PLAZA INGURU BETETZEN DIRA ETA IKASTURTE HONETAN ATZERRITARRAK ERE HARTU DITUZTE. BERRITZE LAN GARRANTZITSUAK EGIN DITUZTE.



Aspaldi zabaldu zuten Arrasaten ikasleei ostatua emateko Pedro Biteri eta Arana egoitza. Sasoi batean Lanbide Heziketa ikasten zutenei zuzenduta zegoen, baina 1995ean Ikastetxe Nagusi bilakatu zen eta 1998an Mondragon Unibertsitatearen sorrerarekin berorri atxiki zen. Bi eraikin hartzen ditu egoitzak: GEPeko 4. eta 5. eraikinak.
Egoitza Nagusiak 156 pertsonentzat plazak ditu. Lehenengo solairua erabat berrituta dago, baita bigarrena ere, eta hirugarrena datorren udan berritzeko asmoa dute.

### 100 IKASLE BATEZ BESTE

Ikasturtero 100 ikasle inguru hartzen dituzte egoitzan, horren bueltan dabiltza urtero. Ikasturte honetan, baina, atzerritarrak ere hartzen hasi dira eta kopurua handitu egin da, asteburuetan egoitza zabaltzen hasi direlako. ”Orain arte asteburuetan itxita izan dugu egoitza eta atzerritarrak etxebizitza pribatuetara joaten ziren”, argitu du Ikastetxe Nagusiko zuzendari Mikel Aranburuk. Ikasturte honetan 10 atzerritar hartu dituzte: bost turkiar, alemaniar eta finlandiar bana, Salvadorreko bat, Honduraseko bat eta Kanadako bat.

### ATZERRITARREK GIROA ABERASTU

Atzerritarrak hartzearen apustua berria da eta estrategikoa, bi helburu garrantzitsu bermatzen dituelako: arlo ekonomikotik helduta lagungarria da; eta alderdi sozio-kulturaren ikuspegitik ere irabazten du. “Egoitzan bizi

Ikasturte honetan, baina, atzerritarrak ere hartzen hasi dira eta kopurua handitu egin da, asteburuetan egoitza zabaltzen hasi direlako. Ikasturte honetan 10 atzerritar hartu dituzte.



diren ikasleek ingelesa praktikatzeko aukera dute eta baita beste bizitza era batzuk ezagutzeko ere; hori oso garrantzitsua da", azpimarratu du Aranburuk. Eta horren bidean hainbat ekimen antolatu izan dituzte egoitzan bertan ikasleek harremanak izan ditzaten: afariak, irteerak eta abar.

Hala, batu daitezkeen atzerritarren aurreikuspenak eginda, uste dute orain arteko 100 ikasleen batez bestekoa 140ra igotzeko moduan daudela.

### LEHEN MAILAKOAK NAGUSI

Ikasturtez ikasturte gipuzkoarrak eta bizkaitarrak izaten dira nagusi; eta Arabatik eta Nafarroatik ere joaten dira batzuk. Espainiatik oso gutxi, nahiz eta inoiz master edo graduondokoa ikasi duenik hartu izan duten. Egoiliarren %85 inguru lehen maila egitera etorritako ikasleak dira. Horietatik gehienak GEPekoak, baina baita HUHEZI (IKOtik eta baita Hezkuntzatik) eta Enpresagintzako batzuk ere.

CONVIVIR, COMPARTIR Y APRENDER. Jóvenes de diversa nacionalidad y costumbres comparten espacio y conviven en la residencia Pedro de Biteri y Arana.

Egoitzako ikasleen profila batez ere lehen mailako ikasleena da eta hori oso barneratuta dute egoitzako arduradunek: "Ikasle batentzat unibertsitatea gauza berria da, ez dakite zein eskakizun maila izango den, bakarrik datoz, eta egoitza bera etortzeak babes handiagoa ematen die; horrez gain, lagunak egingo dituzte, giro bat aurkituko dute eta badakite egoitzako arduradunek ere gidatuko dituztela".

Baina ikasketetan aurrera egin ahala, nahiko ohikoa da ikasle horiek euren burua unibertsitatean egonkortuta ikusten dutenean, esperientzia berriak bizi izatearren, alokairuan etxebizitzetara joatea. "Badakigu gazteek esperientzia desberdinak bizi nahi dituztela; zaila izaten da graduko lau urteak gurekin egitea. Horregatik gure helburua da egoitzan dauden bitartean gustura egotea, ikasurteak gainditzea eta hemendik zerbait positiboarekin atera daitezela", azpimarratu du egoitzako zuzendariak.

### IKASLEEK ARDURAK HARTZEA

Pedro Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusiak berezitasun oso nabariak ditu. Aranbururen esanetan, "ikaslearekiko gertutasun handia daukagu, eta horrek ahalbidetzen du ikaslearen inplikazioa gauzak elkarrekin egiteko".

Ikastetxe nagusiko arduradunek ikasleei eskatzen diete ikasketak aurrera ateratzeko eta ondo pasatzeko; horretarako, ardurak hartzeko eta arduratsu jokatzeko; hori omen da abiapuntua eta elkarlana emankorra izateko oinarria: "Ezinbestekoa da ikasleek euren ikasketen ardura hartzea, beraiek izan daitezela euren garapenaren bultzatzaileak; modu horretan jorratuko dituzte hainbat konpetentzia eta balio: egoitzan lekukotzea, besteekin batera lana egitea, sozializatzea, egoitzan bizitza aktiboa izatea… Azken batean, horren guztiaren ondorioz, Biteritik igarotzeak beraiengan arrastoa utz dezala".

### ZELULAKA ANTOLATUTA

Lau logela bakoitzeko zelula edo batzorde bana osatzen dute; guztira 12 bat zelula, egoiliar guztiek parte har dezaten. Eta hainbat ardura definituta dituzte: jangelaren jarraipena, lokal sozialaren ardura, larrialdi taldea osatu, tertulia taldea, *masterclass* ekintzak… Horren bitartez, lortzen dute ekintza ugari egitea eta →



egoitza dinamikoa izatea. Eta ikasleei ECTS kredituak eskaintzen dizkiete trukean.

"Ezinbestekoa da ikasleek euren ikasketen ardura hartzea, beraiek izan daitezela euren garapenaren bultzatzaileak"

## EGOITZA MISTOA

Biteri egoitzan banakako 17 logela daude eta gainontzekoak bikoitzak dira. Badira dutxa eta komuna gela barruan dutenak eta ez dutenak ere. Eta neska eta mutilei zuzendutako egoitza da, solairutan banatuta. Bestalde, 00:00etan ateak ixten badituzte ere, egoiliarrek txartelak dituzte eta nahi dutenean sartu eta irteteko askatasun osoa dute. Bisitak eramanez gero, jakinarazi behar dute, egoitzak asegurua hitzartuta daukalako.

## ZERBITZU UGARI

Egoiliarrei ostatua eta jana eskaintzeaz gain, aisialdiarekin lotutako azpiegitura dezente ditu Biteri egoitzak eta asko dira eskaintzen dituen zerbitzuak: tutoretza programa, igerileku publikoa, gimnasioa, jangela, lokal soziala, tertulia programa, *masterclass* ekintzak…

Burutzen dituzten ekimenen artean nabarmentzekoak dira astero egiten dituzten yoga ikastaroak, aipatutako tertuliak eta irteerak. Eta horien artean aipagarria da iaz egindako *clown* ikastaroaren ondorioz sortu duten dinamika. Talde bat eratu dute eta dagoeneko Arrasateko zaharren egoitzan ere aritu izan dira. *Clown* taldeak jarraipena izatea nahi dute, eta Arrasaten eragingo duten halako esperientzia gehiago sortu nahiko lituzkete.

Lantzen duten beste arlo bat elkartasunarena da. Haima proiektuaren bidez, Sahara eta Etiopiaren aldeko ekimenak gauzatu izan dituzte, eta horretan dihardute.

COMPAÑERISMO
Los residentes destacan el buen ambiente y el compañerismo reinante en Biteri Ikastetxe Nagusia.

## IKASTETXE NAGUSIEN ELKARLANA

Biteri Ikastetxe Nagusia Espainiako Consejo de Colegios Mayores-en eta European University College Association-en baitan dago. Horrek ahalbidetzen du elkarrekin erakundeen aurrean presio gehiago egin ahal izatea eta ikastetxe nagusien artean elkarri laguntzea. Orain arte dinamika bateratu batzuk egin izan dituzte, baina helburu berriena da Biteriko eta beste ikastetxe nagusietako ikasleek asteburuetan egonaldi trukeak egin ahal izatea.

Haima proiektuaren bidez, Sahara eta Etiopiaren aldeko ekimenak gauzatu izan dituzte.

# DISTINTA FORMA, MISMO FONDO

"¡Corre corre, que son las dos menos diez y cierran el Biteri!" Hace no muchos años, era la frase más repetida el jueves por la noche y era la antesala de una larga carrera contrarreloj para evitar ser el primero que se quedaba sin entrar por el invernadero (y tener que pasar la noche fuera hasta las 7 de la mañana cuando volvían a abrirse las puertas). "¡Pues en mis tiempos dormíamos en literas y 6 personas por habitación!" Y así era, hace ya algunos años más. Hoy en día, el Colegio Mayor abre sus puertas toda la noche y las habitaciones son de dos personas como máximo.

No hay duda de que el Biteri ha ido adaptándose a los tiempos, tratando de dar respuesta a las demandas de los nuevos colegiales. También ha variado su estructura interna de funcionamiento y participación, pasando de los famosos "mínimos" (actividades que había que cumplir para poder seguir un año más en el Colegio Mayor) al actual sistema de Batzordes basado en la agrupación de habitaciones próximas.

Pero hay una cosa que no ha cambiado desde que conozco el Biteri y es su voluntad de seguir siendo un nido de oportunidades, una mano tendida para aquel que esté dispuesto a aprovecharla en su desarrollo como persona. De mis años en el Colegio Mayor me llevo muchas cosas, pero sobre todo esa sensación de haber crecido sin darme cuenta.

*"Entré al Biteri con la intención de hacer amigos e irme a un piso rápidamente, pero hoy no me arrepiento nada de haber pasado allí casi tres años."*



**Pablo Sal.**
Biteri Ikastetxe Nagusiko egoiliar ohia.

Llegar un día en el que me ví siendo capaz de hacer cosas que el año anterior ni siquiera me planteaba. Y todo ello en un ambiente distendido, conociendo un montón de gente.

Recuerdo también que entré al Biteri con la intención de hacer amigos e irme a un piso rápidamente, pero hoy no me arrepiento nada de haber pasado allí casi tres años. Ya tuve tiempo más adelante de compartir piso y vivir en el extranjero; hay etapas que conviene vivir a su debido tiempo, sin prisas.

ELISABETH URRUTIA, COORDINADORA DEL CURSO AVANZADO DE DISEÑO INDUSTRIAL

# “EL DISEÑO, ES UNA HERRAMIENTA DE GESTIÓN ESTRATÉGICA EN LA ACTIVIDAD EMPRESARIAL”

MU HA CREADO UN CURSO AVANZADO DE DISEÑO INDUSTRIALQUE SE IMPARTIRÁ EN BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA Y EMPEZARÁ A ANDAR EL 7 DE MARZO. ELISABETH URRUTIA, EXPERTA DEL DISEÑO, ES LA RESPONSABLE. URRUTIA HACE HINCAPIÉ EN QUE EL ESCENARIO HA CAMBIADO: EL DISEÑO YA NO SOLO ES DISEÑO, ES UNA HERRAMIENTA DE GESTIÓN ESTRATÉGICA EN LA ACTIVIDAD EMPRESARIAL.



**EPS cuenta con un bagaje de gran relevancia en el diseño industrial…**

Así es. En 1986 ‘la Eskola’, cuando todavía no era universidad, becó a unos recién titulados en Ingeniería y Arquitectura para traer know how desde Italia. Pero en aquel momento no se podían incorporar los estudios de diseño porque no eran oficiales. Y fue ya en 1997 cuando se planificaron unos estudios con titulación oficial; creo que fue la tercera universidad en el Estado. A partir de ahí ha ido creciendo y adaptándose en Grado en Diseño Industrial.

**¿Cómo se valora desde fuera la formación de EPS en este ámbito?**

La promoción del diseño en España se ha centrado principalmente en identificar éste con los aspectos formales y superficiales. Pero en MU, dadas sus características y las del entorno industrial, la formación del diseño tiene una voluntad clara de integración en la empresa. Además, MU tiene la virtud de hablar el mismo lenguaje que las empresas, además de una metodología de aprender haciendo.

**¿Qué tipo de reto ha supuesto para el Departamento de Diseño preparar este curso avanzado en BBF?**

Bilbao y un órgano nuevo, el BIDC (Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council) que aglutina a la Diputación de Bizkaia y al Ayuntamiento de Bilbao, nos invitó a participar en un proyecto formativo que refuerce las industrias creativas de Bilbao. Quieren dotar a Bilbao de actividades formativas con gran proyección y nos plantearon la creación de un master en diseño de caracter internacional. Pero antes de trasladar el actual master de diseño a Bilbao hemos preferido apostar primero por un curso avanzado y ver la respuesta del entorno industrial de Bilbao.

**¿A quién está dirigido el curso?**

A aquellas personas que están trabajando en las empresas y no tienen formación en diseño, para que integren los aspectos claves en su organización, o para ampliarla posteriormente.

**¿También a responsables de innovación y marketing?**

Así es. Partiendo de esta visión de que el diseño es una herramienta de gestión, nos interesa que vengan también responsables de empresas, especialmente de PYMEs, y también responsables de marketing.

**Planteáis el diseño como una plataforma entre empresa y demanda social, y también como camino para abrir nuevos negocios…**

Sí. Aún siendo una disciplina que la gente pueda conocer, la mayoría no conoce su evolución. Hasta ahora el diseño se valoraba como una actuación superficial a nivel de forma, pero el concepto de Design Thinking le aporta otro valor: el diseño no solo sirve para hacer productos y servicios, también es la herramienta adecuada para conceptualizar nuevos negocios. Todas las herramientas que el diseño tradicionalmente ha usado para generar nuevas ideas o productos, sirven para generar nuevos negocios. Además, el diseño responde a una demanda social, porque su actividad revierte en la sociedad y en un entorno social dinámico, activo y creativo.

# MARKETIN MUGIKORRARI BURUZKO DOAKO JARDUNALDIA ENPRESAGINTZAN



URTARRILAREN 20AN, MARKETIN MUGIKORRARI LOTUTAKO ESPERIENTZIA PRAKTIKOEN BERRI EMAN ETA HORREN INGURUKO KONTZEPTUAK AZALTZEKO JARDUNALDIA EGIN ZUEN MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK OÑATIN DUEN CAMPUSEAN.

' *Mobile marketing*' izenez ere ezaguna den diziplina horrek gailu mugikorren bidez egindako marketin-ekintzak diseinatu eta ezartzera bideratutako jarduera guztiak biltzen ditu. Izan ere, telefonia mugikorraren sektoreko garapen teknologikoari (*smartphone*-ak) eta beste gailu batzuekin (tabletak) eta hedabideekin (Internet) integratzeari esker, marketin mugikorra funtsezko elementu bihurtu da erakunde horietan.

Mondragon Unibertsitateak antolatu zuen jardunaldia, ikasle nahiz irakasleei mugikorren marketinaren gaur egungo egoeraren eta joera berrien ikuspegi zabala eskaintzeko asmoz. Jardunaldia guztiz irekia izan zen. Ekitaldiaren aurkezpena Mikel Mesonero Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko koordinatzaile akademikoak egin zuen. Horren ondoren, Roca Salvatella enpresak '*Mobile marketing*-a, errealitatea' izeneko inaugurazio-ekitaldia burutu zuen.

Horren ostean, kasu praktikoak erakutsi zituzten. Gauden lekutik hurbil produktu merkeak eskaintzeko asmoz, saltokien eskaintza eta geolokalizazioa konbinatzen dituen doako aplikazioa sortu duen Boletus enpresako marketin saileko arduradun Nerea Apraiz izan zen lehen hizlaria. Ondoren, Urtzi Jauregibeitiak eta Isabel Liébanak parte hartu zuten. Ideateca enpresako *product manager*ra eta Komunikazio, Marketin eta Gizarte-hedabideen arduraduna dira, hurrenez hurren. Ideatecak honela definitzen du bere burua: "Ideia -fabrika bat da. Teknologia-alorreko profesionalek merkaturatzeko proiektu berritzaileak sortu, diseinatu eta garatzen ditugun lekua".

Kasu praktikoei buruzko lehen zatia amaitzeko, Bature Mobile Solutions enpresako CEOak hitz egin zuen. Bigarren zatian, berriz, Eroski markaren arduradun Eduardo Saiz izan zen lehen hizlaria, eta Jaione Martinezek eta Maria Amutxastegik jardun zuten ondoren. Amutxastegi eta Martinez aplikazio mugikorrak garatzen dituen Skura Mobile enpresaren sortzaileak dira, biak ala biak Mondragon Unibertsitateko ikasle ohiak. Bukatzeko, Dani Reguera Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikertzaileak '*Mobile commerce*-a, *smartphon*-tik erosiz eta salduz' izeneko hitzaldia eskaini zuen.

# II. BERDEAGO AZOKA EGIN ZUTEN DURANGON

LEINN graduko bost ikaslek Euskadiko ingurumen iraunkortasunaren azokaren bigarren edizioa antolatu zuten Durangon, Berdeago Azoka deritzona.

